

LIBURUTEGIEN Euskal Sistema

Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren proiektu estrategiko bat euskal liburutegi digitala legegintzaldi honetan bultzatzea izango da, honela herritar guztiei doako eduki digitalak eskuratzeko aukera emanez.

Ildo honetan kokatu behar da orain dela gutxi Euskadi Europeanan sartu izana. Nazioarteko atari horretan, munduko edozein hiritarrek eskuragai izango ditu egile eskubiderik gabeko euskal eduki bibliografikoak. Hiru miloi irudi digital baino gehiago eskaini ditugu dagoeneko Europeanan eta lanean dihardugu kopuru hori areagotzeko eta, eduki bibliografikoaz gain, beste eduki kultural batzuk (artxiboen, museon eta ikusentzunezkoen arlokoak, esaterako) gehitzeko.

Europeana proiektuarekin batera, mailegu digitala jarri nahi dugu martxan hurrengo hila-beteetan, eredu propioan eta partekatuan oinarrituta, eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegiekin eta estatuan bultzatzen ari diren bestelako ekimenekin koordinatuta. Ekimen honek ez du ohiko mailegua ordezkatzeko asmorik, osatzekoa baizik. Horren adierazle da 2014an berrindartuko ditugula liburu fisikoak mailegatzeko diru-laguntzak, liburutegien funtsak hornitzeko aurtengo aurrekontua %22an ego delarik, 2013ko aurrekontuen aldera.

Mailegu digitalaren eskaintza osagarri hau "praktika onen" testuinguruan kokatu behar da, elementu ezberdinak uztartzen dituen: erabiltzaileen eskubideak, egileen eskubideak eta kultura-ohitura "normalizatuen" garapena, hain zuzen ere. Honek guztiak liburu digitalak doan irakurtzeko bidea zabaldu lezake, "pirateriara" jo gabe.

Erabilera edo mailegu kopuru jakin batera mugatuko da eduki digitalen eskaintza, gaur egun liburu fisikoaren kasuan gertatzen den bezala. Dena den, edukiak eskuratzeko askoz ere bizkorragoa eta azkarragoa izango da, liburu fisikoaren mailegu-sisteman baino.

Guztion artean aurrera goaz XXI. mendeko liburutegi zerbitzuen eskaintza hobetuz.

Eskerrik asko.

Imanol Agote Alberro
Kultura Ondarearen zuzendaria

Liburuklik Euskal Liburutegi Digitalaren funtsak Europeanari eta European Libraryri atxiki zaizkie

Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren ekimenez, Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritzarekin lankidetzaren estuarekin, eta Europako liburutegi digitalak ezarritako baldintza teknikoak bete ondoren, Euskal Liburutegi Digitala atxiki zaie europar ondarearen eta artxibo digitalen sarbidearen eremuan dauden bi erreferentzietan, eta, hala, dokumentu-funtsak hornitzen dituzten liburutegietako bat bilakatu da.

[European Library](#) eta [Europeana](#) dira existitzen diren europar liburutegi digital bakarrak. Europar Batasunak bultzatuta, European Library 48 liburutegi nazionalez eta unibertsitateko ikerketa-zentroz osatuta dago; Europeana, berriz, Europako dokumentu-funts digitalak gordetzen dituen europar errepositorio bat da.

Liburuklik -Euskal Liburutegi Digitala- Europako liburutegi digitalei atxikitzea Eusko Jaurlaritzak eta Euskadik egindako lanarentzako aitortza bat da, ondarearen digitalizazio eta eskuragarritasunari dagokionez eta dokumentu-funts eta -zentroen koordinazioari dagokionez; hala, tresna baliagarria da Euskadiko kultura eta ondarea eta Euskara atzerrian sustatzeko.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen zuzendari Imanol Agoteren hitzetan, "ahaleginak koordinatzeko eta Euskal Kulturaren Liburutegi Digitalaren garapenean jauzi kualitatibo bat egiteko aukera bat da, horren bidez sarbide librea ahalbidetzeko, munduko edozein herrialdeetatik, euskal autoreek sortzen dituzten eta euskal gizartearen zerikusia duten gaietarako eduki kultural publikoetara".



Ermuko udal liburutegia eskola-liburutegiak sustatzen

Aspaldi jabetu ginen zein beharrezkoa den herriko eskoletako liburutegiak sortu eta dinamizatzea, baina zeregin zaila eta konplexua da hori, batzuen eta besteen errealitateak oso ezberdinak direlako eta, gainera, eskola-liburutegien gaineko eskuduntza Hezkuntza Sailak daukalako eta Udal Liburutegiarena, berriz, Kultura Sailak.

Hasteko, “Irakurketa udalerrian: erronkak eta ikuspegiak” jardunaldiak antolatu genituen 2010. urtean, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzarekin, zeinetan liburutegietako, hezkuntzako eta Euskadiko guraso elkarteetako ehun bat profesionalak parte hartu baitzuten. Jardunaldi haietan eskoletako eta udaletako liburutegiek irakurzaletasunaren sustapenean duten eginkizuna aztertu zen, bai eta eta bien arteko elkarreragina, gaiaren inguruko esperientzia praktikoak ere ezagutuz.



San Lorenzo Ikastetxeko liburutegiaren hasierako egoera

Gure errealitatearen analisisa, diagnostikoa eta proposamenak

Ondoren, Udal Toki-Garapene-ko Alorrarekin elkarlanean eta INEMaren Toki-korporazioak programaren bitartez, liburuzain bat kontratatu genuen 6 hilabetez, eskolen eta horietako liburutegien egoeraren diagnostikoa egiteko.

Diagnostiko horren ondorioak oinarritzat hartuta hainbat proposamen egin genizkien ikastetxeei, hala nola gure lankidetzak aktiboa eskoletako liburutegiak martxan jartzeko, irakasle guztien eta guraso elkartearen inplikazioa, eta eskola eta Udalaren arteko hitzarmen bat sinatzea, alderdi bakoitzaren konpromisoak zehaztuz.



San Lorenzo Ikastetxearen liburutegiko ikasketa- eta lan-gunearen egungo egoera

Froga-pilotua

Bere liburutegi-proiektuaren heldutasuna, irakasleen eta guraso elkartaren inplikazioa eta auzoaren beharrak kontuan harturik, San Lorenzo Ikastetxean egin genuen lehen froga.

Gure Liburutegiko langile bat eskolara joan zen lanera hiru hilabetez. Denbora horretan ABIES programa instalatu zen, eskolako materialik gehienei eta Udal Liburutegiak Eusko Jaurlaritzatik lortutako beste batzuei ere alta eman zitzaien eta zaharkitutako funtsak xahutu egin ziren. Udalak, gainera, espazioa egokitzeko lanak egin eta altzariak jarri zituen, eta programa erabiltzen irakatsi zien irakasleei. Ikasleek ere, hainbat zereginetan lagundu zuten beraien jolas-orduetan.

Eskola-liburutegi gehiago

Geroztik, beste bi eskola publikok, Ongarai Eskolak eta Anaitasuna Ikastolak, gure laguntza eskatu eta jaso dute euren eskola-liburutegiak martxan jartzeko. Hasierako laguntza eman ondoren, irakasle eta gurasoentzako prestakuntza- eta aholkularitza-saio bat ematen dugu hilean behin, eta irakurzaletasuna sustatzeko ekintzak koordinatzen ditugu.

Enplegu-gunea

Etengabeko zeregina dela jakinda Vitoria-Gasteizko E.H.U. ko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearekin eta Eibar-Ermua B.H.Iko arduradunekin harremanetan jarri gara interesa duten ikasleei gure herriko eskola-liburutegietan praktikak egiteko aukera eskaintzeko.

*Sara Gago
Ermuko Udal Liburutegia*



Jolas-orduko laguntzaileak


LAMak igoera nabarmena izan du

Ekitaldi berri honetako estatistikek agerian uzten dute beste behin ere Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegi zerbitzuek egindako lan esker-garen garrantzia.

Ildo horretik, liburutegien arteko maileguak datu oso positiboak lortu ditu 2013an, %43,55ko gorakada izan duelarik. Honela, 2012an, 50.710 ale garraiatu ziren liburutegi ezberdinetara; 2013an, berriz, zifra hori 72.088ra igo da. Gorakada hori sareko irakurketa klubak sendotzeari dagokio, urtean zehar liburutegien arteko maileguari esker hainbat sorta lekualdatzeko aukera egon baita.

Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean izandako maileguei dagokionez, beherakada txikia pairatu dute iazko datuekin alderatuz. Hala ere, bi milioi inguru (1.923.201) izan dira beste behin ere.

Bestalde, 28.883 erabiltzaile berri zenbatu dira sarean. Orotara, jada, 543.294 dira, urtero ia 30.000ko hazkundea lortuz.



Erabiltzaileak

Gainera, 163.695 ale berri altan eman ostean, 4.215.549 alek osatzen dute EIPS-eko funtsa.

Era berean, 18.737 titulu berri sartu dira 2013an. Horrela, urte amaieran 660.101 tituluk osatu dute datu-base osoa. Horiek, halaber, OPAC bidez egin diren milioi pasatxo kontsulten parte izan dira (1.198.754).

“Liburutegiak”, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen aplikazio mugikorra


“Liburutegiak” App delakoa, publikoki eta doan eskaintzen den Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzuaren egitasmoa da, EIPS-eko liburutegietatik kudeatzen diren eduki espezifikoak, ekintzak eta informaziorako sarbidea kanal berri baten bidez sustatzeko asmoz.

Erabiltzailearen eskura jartzen diren aplikazioaren funtzionalitateak honakoak dira:

- **Berriak eta ekintzak:** Sareko liburutegiek argitaratutako azkenengo 10 berrien zerrenda. Honetaz gain, aurreikusitako ekintzak geolokalizatu eta hiru mailatan segmentatu: nire liburutegikoak, inguruetako liburutegietakoak eta liburutegi guztietakoak.
- **Katalogoaren kontsulta:** EIPS-eko katalogo kolektiboan dauden dokumentuen bilaketa uzten du eta honekin batera bere eskuragarritasuna eta kokapen fisikoa.
- **Liburutegien mapa:** mapa baten bidez edota erabiltzailearen gertutasunari jarraituz ordenatutako zerrenda baten bidez osatutako EIPS-eko liburutegien geolokalizazio sistema. Honek, liburutegi guztietako fitxetan sartzeko aukera eskaintzen du. Bertan, harremanetarako datuak, ohiko ordutegiak eta ordutegi bereziak eta liburutegietako blog edo/eta web orrirako sarbide zuzena aurki daitezke eta check-in-a egiteko, bozkatzeko, iruzkinak egiteko eta informazioa partekatzeko aukera dago.
- **Bilduma egunean:** aukeratutako azken erosketen deskribapena iruzkin profesional batekin. Honekin batera, liburutegi guztietan gehien mailegatutako dokumentuen rankinga kontsultatzeko aukera eskaintzen da, “Haurrak” eta “Helduak” kategoriatan sailkatutako dauden hiru tipologia ezberdinetan zatiturik: irakurrienak, ikusienak eta entzunetak.
- **Blogak sarean:** sarbide zuzena EIPS-eko liburutegietako aktibo dauden blogetara, mapan geolokalizaturik daudenak edota erabiltzailearen hurbiltasunaren arabera ordenatutako zerrenda baten bidez eskuragarri daudenak.
- **Bideoen kanala:** EIPS-eko Youtube kanal tematikora sarbide zuzena. Honetan, liburutegietan sortutako prestakuntza pilulak eta pilula informatiboak aurkitzen dira.
- **Erabiltzaile profila:** erabiltzaile bakoitzak datu ezberdinak biltzen dituen panel pribatua. Honen bitartez, ospe maila kontsultatu, aplikazioan izandako elkarrekintzarekin pilatutako estatistikak ikusi, erreferentziako liburutegia edota liburutegi gustokoena hautatu eta hasitako sesioa ixteko aukera izango da.

Aplikazioa zure IOS gailurako (iPhone/iPad) izan nahi baduzu, deskarga ezazu [App Store-tik](#).

Android-erako ere erabilgarri dago: [google play-tik](#).



“Liburutegiak” app-etik pantaila-kapturak



Bertako bilduma digitalizatzea erraza da (nola egin badakizu, noski)

Bost galderei erantzunez, gure liburutegian *“Laudi Barrendik”* (Laudioren buruzko lanen digitalizazio proiektua) nola jarri genuen martxan azalduko dugu.

1. Finantziak nola lortu

Barkatu diruari buruz ari banaiz besterik gabe, inolako sarrearik gabe. Baina, egia esan, proiektu ugari aurrera ateratzeko dagoen oztoporik handienetakoa da. Kasu honetan, galdetu eiozue Francisca Pulgar Vernalteri, izan ere, Eusko Jaurlaritzan baita ordaintzeaz gain, lanak hartu eta digitalizatzen dituen.

2. Zein lan digitalizatu

Gure kasuan, bi baldintza hauetako bat betetzen zizutenak aukeratu ditugu:

- Audioko egileen lanak.
- Audioko gaiak jorratzen zizutenak.

Pixkanaka kopurua haundituz joan zenez, proiektua fase ezberdinetan banatzea erabaki genuen; bakoitza materialaren arabera antolatuz: 1-Aldizkariak, 2-Liburuak, etab.

3. Lan hauek nola aurkitu

Materialak biltzerako momentuan, ondorengo bilaketa ordena jarraitu dugu:

- Liburutegia eta Udal Artxiboa.
- Beste liburutegi batzuk: beren katalogoetan bilatuz. Ez ditugun zenbait lan Sancho el Sabio Fundazioan aurkitu ditugu.
- Gida espezializatuak.

Honekin batera, ZUIN-aren (Udalak argitaratzen duen eta udalerriari buruzko albisteak dituen argitalpena) bitartez Audioren buruzko materialak lortzeko laguntza eskatu dugu.

Iturri ofizial hauetaz gain, gure liburutegiko erabiltzaileengana jo dugu ere. Hauek, ezagutzen ez genituen lanei buruzko informazioa eman eta horien aleak erraztu dizkigute. Beraiei esker, *“Laudi Barrendik”* forma hartzen ari da eta laster errealitatea bihurtuko da.

4. Egileek utzi behar dituzten eskubideak

Digitalizatzerako bidali aurretik, lanaren jabetza intelektualeko eskubideen titularraren baimena lortu behar dugu. Dokumentu baten sinaduraren bidez, publikoki argitaratzeko eskubideak utzi behar dizkigu.



Kasurik gehienetan, titularrek arazorik gabe utzi dituzte eskubideak. Kasu bakanen baten, honako argumentuen bidez konbentzitu ditugu:

- Lanaren zabalkundea.
- Egilea ezagutzea.
- Argitaletxearen publizitatea.

5. Zergatik digitalizatu bertako bilduma?

Lanak babestu, informazio hori mundu guztiaren esku jarri eta antzeko arrazoiez gain, eskuliburutean ez datozen baina bihotza hunkitzen diguten beste batzuk aipatuko ditugu:

- Espido Freire edota Txani Rodríguez bezalako egileen hastapen literarioak jarraitzeko irrika.
- Argitaratu gabe dagoen lan bat ekartzen dizun pertsona horren ilusioa, lan horrek udalerriarentzako balio handia duelarik.
- Haurra zenean udak Audioren pasatzen zituen pertsonak horren poza, bere aitak idatzitako garai haietako bere arbasoen gaineko pasadizoek sortarazten duten interesaz jabetzen denean.
- Aldizkari bat argitaratzen zuen enpresa horretan lan egiten zuen hildako senide haren gaineko ahalik eta informazio gehiena bilatzeko premia.

Arazoi guzti horientatik, digitalizazio egitasmo bat hastera animatzen zaituztegu, onurek nabarmen gaindituko baitituzte oztopoak.

“Laudi Barrendik” proiektuaren barnean dauden lan guztiak maiatzaz geroztik Liburuklik-en kontsultatu ahal izango dira; eta, ziur asko, urtea bukatu aurretik Europeanan.

Patricia Acebes
Laudioren liburutegia

Helduak

Haurrak

Gaztelania : Irakurrienak

1. Misión olvido / Maria Dueñas
2. Cincuenta sombras de Grey / E.L. James
3. El guardián invisible / Dolores Redondo Meira

1. ¡Esto es el colmo! / Jeff Kinney
2. La cruda realidad / Jeff Kinney
3. Días de perros / Jeff Kinney

Gaztelania : Ikusienak

1. Intocable / Eric Toledano y Olivier Nakache
2. Criadas y señoras = The help / Tate Taylor
3. Lo imposible / J.A. Bayona

1. Hello Kitty y sus amigos
2. Erase una vez el cuerpo humano
3. Toopy y Binoo

Gaztelania : Entzunenak

1. Vaughan intensive english: el curso de inglés multiplataforma
2. Willkommen: el alemán a su alcance: el curso de alemán multiplataforma
3. Global English Academy

1. Los PITUFOS te desean un cumpleaños feliz
2. Aprendo a leer con los cuentos Disney
3. MANUELITA: banda sonora original de la película

Euskara : Irakurrienak

1. Mussche / Kirmen Uribe
2. Ez naiz ni / Karmele Jaio
3. Twist: izaki intermitenteak / Harkaitz Cano

1. Txomin ospitalean / Liesbet Slegers
2. Txomin eskolan / Liesbet Slegers
3. Txomin ilea mozten / Liesbet Slegers

Euskara : Ikusienak

1. Urte berri on amona!
2. Chloe
3. Gartxot: konkista aitzineko konkista

1. Zazpikoloroa / Pirritx, Porrotx eta Mari Motots
2. Ongi etorri Pupu eta Lore / Pirritx, Porrotx eta Mari Motots
3. Irrien lagunak / Pirritx, Porrotx eta Mari Motots

Euskara : Entzunenak

1. Zazpi kantoietan / Gatibu
2. Deserriko kantak / Eñaut Elorrieta
3. Memoriaren mapan / Ruper Ordorika

1. Sentitu, pentsatu, ekin!: sinfonikoa / Pirritx, Porrotx eta Mari Motots
2. Irrien lagunak / Pirritx, Porrotx eta Mari Motots
3. Ongi etorri Pupu eta Lore / Pirritx, Porrotx eta Mari Motots